berria ikasgela

ASTEBURUKO PROPOSAMENAK

Sagarrari zukua ateratzeko

Gaurtik larunbatera egingo dute Sagardo Foruma, Astigarragan eta Donostian. Nazioarteko Sagardo Lehiaketa, azoka eta jardunaldi teknikoak izango dituzte.



Duela bi urteko Sagardo Foruma, Donostian. JAGOBA MANTEROLA / FOKU

aldi hau kontatzeko

Zure babes ekonomikoari esker egiten dugu kazetaritza konprometitua. **BABESTU BERRIA**

Egin zure ekarpena

05:00

Ondarea, museologia, turismoa, azoka, lehiaketa... eta, guztiaren oinarrian, sagarra. Euskal Herrikoa bertakoa eta kanpokoa. Sagardoaren Lurraldeak antolatuta, VI. Sagardo Foruma egingo dute, gaurtik larunbatera, Gipuzkoako hainbat tokitan; Astigarragan eta Donostian izango dira ekitaldi nagusiak. Sagarrari, sagardoari eta turismoari buruzko nazioarteko ekitaldia da. Astigarragan, Erribera kulturgunean eta Alorrenea sagardotegian izango dira saioak, eta Donostian, Kursaal jauregian, Basque Culinary Centerren egoitzan eta LABe jatetxean. Bi txango ere egingo dituzte: bata Ezkioko Igartubeiti baserrira —gaur arratsaldean—, eta bestea Euskal Kostaldeko Geoparkera, Zumaiara —bihar arratsaldean —.

Sagarrari, sagardoari eta turismoari buruzko jardunaldi teknikoak egingo dituzte gaur eta bihar, egun osoz. Ondarea, museologia, turismoa, sagarra eta sagardoa hezkuntzarako eta komertzializaziorako tresna gisa, horixe izango dute hizpide. «Ondarea eta museologia dira aurtengo berritasunak», zehaztu du Leire Alkorta Sagardoaren Lurraldeko gerente eta VI. Sagardo Forumaren zuzendariak. «Batetik, sagardotegiak eurak, izatez, badira sagardoarekin lotutako ondarearen isla bat, baita museo txikiak ere; bestetik, Dolareak proiektua ere jarri berri du martxan Astigarragako Udalak. Garrantzitsua

keinu
OPTOMETRIA ZENTROA
•Optika
•Optometria
•Haurren ikusmena
•Terapia Bisualak
Arkaraz, 3
48240 Berriz (Bizkaia)
94 622 50 99 | 622 132 198

aldi hau
kontatzeko
Zure babes ekonomikoari esker egiten dugu kazetaritza konprometitua. **BABESTU BERRIA**
Egin zure ekarpena

programa eleaniztun baten bidez, Euskal Herriko mugaz gaindiko lankidetza indartzea dira Dolareak proiektuaren helburuak.

Alor teknikoa bakarrik ez


Neurri handi batean, sagarraren sektoreko adituentzako dira jardunaldi teknikoak. Xabier Urdangarin Astigarragako alkatea, Jabier Lekuona Peio Martikorena fundazioko arkitektoa, Ibon Telleria EHUko Donostiako Arkitekturako Goi Eskola Teknikoko irakaslea eta Josue Susperregi Arkeolan fundazioko laborategiko arduraduna izango dira hitza hartzen lehenak. «Baina Paolo Spagnolo suitzarra ere, Ripolgo museo etnografikoko arduraduna, gurean izango da, adibidez», zehaztu du Alkortak. «Eta Euskal Herriko, Asturiasko, Kataluniako eta Frantziako beste hainbat hizlari ere izango dira, eta sagardoa, sagarra eta gazta izango dituzte oinarri».

Hizketara eta entzutera bakarrik ez dute mugatuko, ordea, hiru eguneko saioa. Izan ere, besteren artean, Nazioarteko Sagardo Lehiaketa ere egingo dute gaur, 15:00etan, eta irekierako afaria izango dute Donostiako LABe jatetxean, 20:30ean; txotx erritu afaria egingo dute bihar, 20:30ean, Astigarragako Alorrenea sagardotegian; eta Nazioarteko Sagardo Azoka etzi, Donostian, Basque Culinary Centerren. «Bertako eta nazioarteko ehun sagardo baino gehiago dastatzeko aukera egongo da». Azokan bertan, bi dastaketa ere egingo dituzte: 12:00etan, alkoholik gabeko sagardoak

aldi hau *kontatzeko*

Zure babes ekonomikoari esker egiten dugu kazetaritza konprometitua. **BABESTU BERRIA**

Egin zure ekarpena →



Alkortak argi utzi du Sagardo Foruma «oso baliagarria» dela «harremanak sortzeko eta hausnartzeko espazio bat izateko. Beste errealitate batzuk ezagutzeko aukera ere ematen digu jardunaldi honek». Sagardoaren Lurraldeak «sagardoaren kultura bere osotasunean» ezagutarazi nahi du nazioartean. «Eta kanpoan egiten ari diren hori ere ezagutu nahi dugu». Dibertsifikazioa buruan, etorkizunera begira sagarrari zukua ateratzen jarraitzeko.

GAIAK

Arteak eta kultura

Ondarea

aldi hau *kontatzeko*

Zure babes ekonomikoari esker egiten dugu kazetaritza konprometitua. **BABESTU BERRIA**

Egin zure ekarpena →

Turismoa eta ostalaritza

Sagardo Foruma

Basque Culinary Center

Sagardoaren Txapelketa

Euskal Herria

Gipuzkoa

KAZETARITZA ETIKOAREN ARABERA SORTUA

Nola bermatzen dugun edukien kalitatea ↗

Kazetaritza propio eta independentearen alde

BERRIAk kazetaritza konprometitua egiten du, komunikabideen eginkizuna funtsezkoa baita gizartea informatuta egoteko eta kritikoa izateko. Lan horretan sakontzeko, irakurleen babes ekonomikoa ezinbestekoa da, neurri handi batean komunitate handi horrek sostengatzen baitu euskarazko egunkari nazionala. Babestu BERRIA.

Egin zure ekarpena

Aukeratu BERRIA gogoko iturri gisa Googlen

aldi hau *kontatzeko*

Zure babes ekonomikoari esker egiten dugu kazetaritza konprometitua. **BABESTU BERRIA**

Egin zure ekarpena →

IRUZKINAK

Ez dago iruzkinik

Iruzkin bat egin

ORDENATU DATA

INTERESGARRIA IZANGO ZAIZU



Karla Pisano: «Lan ona egiten badugu, alderdiek hitz egin ahalko dute prezioak jaisteaz»

PAULO OSTOLAZA



Bigarrenez Bilboko familia baten etxegabetzea behin-behinean geldiarazi dutela jakinarazi du AZETek

MADDALEN OMAETXEBARRIA



Etxebizitza da EAEko herritarren lehen arazoa, segurtasuna bosgarrena, eta migrazioa seigarrena

XABIER MARTIN



aldi hau *kontatzeko*

Zure babes ekonomikoari esker egiten dugu kazetaritza konprometitua. **BABESTU BERRIA**

Egin zure ekarpena →



Elhuyar Zientzia Azoka
2027
elhuyar

NABARMENDUAK



Vicente Ameztoi lau kolpetan

GARBIÑE UBEDA



Ana Ollo: «Legealdia bukatu baino lehen, beste berrehun postutan ezarriko dugu euskarazko profila»

ION ORZAIZ

'Bertsolaritza: denboraren joanean irautea' dokumentalaren borzgarren atala



Itziar Aranburu eta Jon Ander Garcia: «Dikzionarioa disekzionatuz, dinamika deliranteenetik deribatu du 'Dudak dakarrena' dramak»

IÑIGO ASTIZ

Harpidetu Berriaren buletinetara

Mendia


Arratsaldekoa

aldi hau *kontatzeko*

Zure babes ekonomikoari esker egiten dugu kazetaritza konprometitua. **BABESTU BERRIA**

Egin zure ekarpena →

Nafarroa Iparraldea



Izena ematean pribatutasun politika onartzen duzu.

Zure posta elektronikoa

Harpidetu

aldi hau
kontatzeko

Zure babes ekonomikoari esker egiten dugu kazetaritza konprometitua. **BABESTU BERRIA**

Egin zure ekarpena